



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Philippe Jaroussky eta Thibaut Garciak ostegunean *À sa guitare* aurkeztuko dute, elkarrekin egin duten lehen diskoa, Arriaga Antzokian

- Philippe Jaroussky gaur egungo kontratenorrik onena dela aintzatesten da, eta duen maisutasun teknikoaz ñabardurarik ausartenak eta piroteknariak ikusgarrienak egin ditzake.
- Thibaut Garcia gitarra klasikoaren 'aurpegi berria' da, geraldian dagoen artista, nazioarteko hainbat lehiaketa irabazi ondoren kritikariek iraganeko gitarra-jotzaile handien parean jartzen dutena.

**Bilbo, 2021eko abenduaren 14a.** – Arriaga Antzokiak munduko ahots liriko garrantzitsuenetako bati egingo dio harrera ostegun honetan, abenduaren 16an (19:30ean): **Philippe Jaroussky**-ri. Kontratenor bikaina Arriagara itzuliko da, 2019an bertan arrakasta handia izan ondoren, **Thibaut Garcia** gitarristarekin batera proiektu oso berezi bat eskaintzeko.

Gitarrak eta bere arbasoek, lauteak edo tiorbak, ahotsaren inguruan ehundura erudituak eratu zituzten, eta mendeetan zehar nagusi izan ziren areto aristokratikoetan, melodian pentsatzean pianoa burura etortzen zaigun arren. Horregatik, Jarousskyk eta Garciak hari-instrumentu hori aldarrikatzen dute kontzertu honetan, eta bertuosismoz eta sentimenduz interpretatuko dituzte Dowland, Purcell, Giordani, Donizetti, Rossini, Britten edo Granadosen konposizioak, besteak beste.

*À sa guitare* (Warner Classics/Erato, 2021), elkarrekin egin duten lehen lan diskografiko honetan, Jarousskyk eta Garciak arriskuak hartu dituzte, eta urrats bat harago doaz haien ibilbide profesionalean, ohiko erregistroetatik ateratzeko apustua eginez. Horregatik, albumak hainbat estilo nahasten ditu: musika klasikoaz gain, artistak Ariel Ramirez argentinarraren 'Alfonsina y el mar' abesti mitikoarekin ausartzen dira; Luiz Bonfáren 'Manhã De Carnaval' abesti brasildarrarekin; edo Federico García Lorcaren 'Anda, jaleo' eta Matos Rodriguezen 'La cumparsita' abesti ezagunekin.

Diskoak Francis Poulenc XX. mendeko konpositore frantsesaren abesti batetik hartzen du izena, eta Granados, Mozart edo Fauréren lanak ere biltzen ditu, multzo anitz, harrigarri eta koloretsu bat osatuz, bai ikuspegi kulturaletik, bai ikuspegi estilistikotik. Diskoaren 22 abestiek 400 urte hartzen dituzte barne, eta Frantziako, Britainia Handiko, Austriako, Italiako, Espainiako, Brasilgo, Argentinako eta Ameriketako Estatu Batuetako musikagileen musika biltzen dute.

Erronka handia da Philippe eta Thibautek elkarrekin aurkezten duten lehen albumerako. Izan ere, hainbat abesti moldatu behar izan dituzte kontratenor baten

ahots bikainaren eta gitarraren soinuaren berezitasunetara egokitzeko, batzuetan sotila eta harmoniatsua baita eta, beste batzuetan, indartsua eta kartsua.

### **Tandem irabazlea**

Philippe Jarousskyk errepertorio benetan zabala hartzen du eremu barrokoaren barruan, XVII. mendeko fintasunetatik hasi —Monteverdi, Sances edo Rossi konpositoreekin, adibidez— eta Händel edo Vivaldiren trebetasun ikusgarriaraino. Bere ahots-koloratura harrigarriak eta Thibaut Garciaren gitarraren bertuosismoak bat egiten dutenean ikuskizun paregabea eskaintzeko tandem perfektua osatzen dute: Thibaut Garciaren trebetasun aparta (hain gaztea izan arren kontsolidatutako izarra da) Jarousskyren kontrapuntu duina da, bere ahotsaren edertasuna uzten baitizkie ahots-lerro indartsuei. Arriaga Antzokia prest dago denboraldiko kontzertu handienetako bat berean hartzeko.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 30 eta 52 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)